



*Iraila eta urrian, hainbat greba egun deitu dituzte Lanbiden. Gaur hirugarren greba eguna zuten eta orientatzaileen erdiak baino gehiago jarraitu du. Bide batez, langileek mobilizazioa egin dute Bilboko Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean pairatzen duten egoera salatuz. Bihar, urriaren 3an kotxe-karabana egingo dute Donostian 10:00etatik aurrera, Antiguoa, Mirakontxa-Andiatik buelta, San Martzialeko bulegoa eta Groseko bulegoan amaitu. Lanbideko Groseko bulegoan kontzentrazioa egingo dute 11:00etatik aurrera. Etzi, Gasteizera eramango dute protesta.*

### **LAB eta ELAren oharra:**

Lanbideko langileok inork baino hobeto dakizue zein izan den Lanbideren ibilbidea bere sorreratik. Orohar iñolako aurrikuspen eta aurretiazko planifikazio gabe gauzatu zen transferentzia, baita langilegoaren kudeaketari dagokionez ere. Ondoren hartutako erabakiek ere, ez dute planifikazio hobea izan, eta guzti honek eragin latza dauka Lanbidek eskeintzen duen zerbitzuaren kalitatean, eta ikaragarriko karga zerbitzua eskeintzen duten langileengan.

Orientatzaileen egoerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro errepikatu digu lanpostu berezitu bat dela. Are gehiago, Enplegu Publikoaren Lege proiektuan bertan lan orientazioko eskala baten sorrera defendatu du Jaurlaritzak.

Halabaina, une honetan, lanpostuaren berezitasunaren errekonozimendua baztertu eta postu hauek lekualdatze lehiaketara ateratzeko asmoa du Jaurlaritzak, egungo Lanpostu zerrendan lanpostuaren berezitasun hori errekonozituko duen aurrikuspenik jaso gabe. Honela, Lanbide sortu zenetik orientazio lanetan aritu diren orientatzaileen ia %100 (196 langile) ordezkaturik izateko arriskua dago.

Hilabeteak daramatzagu Gobernuarekin biltzen eta irtenbide posibleak proposatzen, Gobernuaren aldetik proposamen bakar bat ere jaso ez dugularik. Une honetan, lau sindikatuok aho batez aurkeztutako proposamen garbi, azkar eta juridikoki bideragarria dago mahai gainean: lanpostu zerrendan betebeharrak jakin batzuk barneratzea orientazio lanpostua bete ahal izateko. Lau sindikatuotako zerbitzu juridikoak ados daude aldaketaren bideragarritasunean. Gobernuak juridikoki eragozpenak ikusten dizkiola esaten digu, baina eragozpen horiek jasotzen dituen txostena sindikatuoi entregatzeari uko egin dio.

Gainera, irtenbide erraz eta egokiena adostu orde, onartezina den eta orientazio lanpostuaren berezitasuna aitortzen ez duen proposamen bat aurkeztu du. Gobernuak egin duen "proposamenak", Lanbide zein Administrazio orokorreko langileei eragiteaz gain, beste eremu batzuetako 80.000 langile baino gehiagori eragiten dio (Osakidetza, Irakaskuntza, Justizia...). Mahai Orokorreko akordioan aldaketa hau jasotzeak, ixtea asko kostatu zen ate bat irekiko lioke administrazioari, ez bakarrik Lanbiden edo Administrazio orokorrean, baizik eta gainerako eremu guzti horietan ere, zenbait lanpostu lekualdatze lehiaketatik at uzteko aukerak irekiz. Gobernuaren proposamen honek ez du irtenbide bat bilatzeko helbururik, mobilizazioa desaktibatu eta langileak banatzeko baino.

ELA eta LAB sindikatuok lau sindikatuon babesa duen eta ikuspegi guztietatik egokiena den irtenbidearen alde egingo dugu lan, hau da, lanpostu zerrendaren aldaketaren alde. Horretarako, ezinbestekoa da une honetan mobilizazioetan parte hartu eta lau sindikatuon babesa daukan aldarrikapen konkretu hau gure egitea, bai orientatzaileok eta bai Lanbideko plantila osoa, zeinari elkartasuna eskatzen baitiogun.

—